ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko apirilaren 24a, asteazkena • 47 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

**Jendaurrean eta kobratzeko moduan jartzea landa Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren 2024ko errolda**

Behin-behineko onespena eman zaio landa Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren 2024ko erroldari, eta jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, interesa dutenek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsitzat joko da, eta kobratzeko aldiari ekingo zaio.

2024ko maiatzaren 20tik uztailaren 20ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, borondatezko epean kobratuko dira 2024ko ekitaldiari dagozkion landa Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren ordainagiriak.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek, ordainketa helbideratuta ez badute, Arraia-Maeztuko Udalak Maeztuko banku erakundean duen kontuan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, epe horretan. Ordaindu aurretik, zergapekoek udal bulegoetan jaso beharko dituzte ordainagiriak, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banku erakunde edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin ahal izango dutela ordainketa. Helbideratuta dauden ordainagiriak banketxeetan kobratuko dira, 2024ko ekainaren 30ean.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratibo abiaraziko da, hala xedatzen baitu Zergabilketarako Araudi Orokorrak, eta kobratu beharrekoari legez ezarritako errekargua ezarriko zaio eta, hala badagokio, berandutze interesak eta sortzen dituen kostuak ere bai.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Maeztu, 2024ko apirilaren 15a

*Alkatea*
*Mª GEMMA RAMOS FERNANDEZ*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.04.24 05:33:10 Z